

Irabazi iturriak:

Gure irabazi iturriak salmentetan oinarritutakoak izango dira. Salmentak aurrez aipatu bezala, denda fisiko eta online ere salduko dugu gure produktua. Horrez gain, guk kolaboratuko dugun beste enprekin ere lortuko ditugu irabaziak, eta salmentekin batera, hau izango da gure irabazi iturri nagusia. Gure bezeroak, esan bezala, gazteak izango dira nagusiki. Izan ere, gazteak dira kirola sarrien egiten dutenak eta ikasten ibiltzen direnak. Gure produktua saltzeko eta irabaziak lortzeko oinarria gure bezeroak direla uste dugu. Bestalde, saiatuko gara kirol elkarte desberdinekin harremanetan jartzen, izan ere, uste dugu, modu horretara bezeroak lor ditzakegula, eta, ondorioz, irabaziak. Bukatzeko, bezeroen ordainketak irekiak ikusten ditugu, hau da, ez dira modu itxi eta bakarrekoak izango.